

NESKA ONTZIRATUA BALADAREN INGURUAN

Jon Kortazar

Orain urte pare bat, Madrilén Erromantze eta ahozko lirikaren beste era herrikoiei buruzko III Kongresoa ospatu zen. Bertara euskal balada baten azterketa aurkeztu nuen. Oraindik argitaratu gabe ba dago ere, ba nuen gogo pixka bat gai berbera tratatzeko. Hipotesi nagusia hauxe zen: Neska ontziratuaren gaia duten euskal baladen artean ezagunenak dira “Brodutzen ari nintzen” eta “Arantzazura joan bear det” hasten diren aldaerak. Biak konparatuz hone-taz konturatzen ginen, azalean —diskurtso mailan— hain berdintsuak izan arren, esanahi mailan —mito mailan— oso desberdinak zirela, eta bukatzeko, beraz, balada desberdin biren aurrean aurkitzen ginela.

Nola ez!, azalaren berdintasuna arrazoitzat hartzen dutenek ez dute onar-tzen pentsatzeko era hau, eta ez dut uste gaizki egiten dutenik. Adibidez, Lakarrak eta berarekin batera Maria Goyri Mintegiaren partaideek:

“...agertuko den Jon Kortazarren lan batetan irakurleak aurki dezake hemen azaldutakoaz ezberdina den eritzi bat; Diman bildutakoa eta Iparraldeko kantak bi balada ezberdin, eta ez baten aldaera, direla, alegia” (1).

Eztabaida lagunartekoa denez eta ez garenez ez bata ez besteak ukabilka-da hasiko, azal dezadan behintzat nola heldu ginen hain planteamentu desber-dinetara.

1. METODOLOGIAREN OINARRIA

Jakina denez, gure baladen azterketarako azken urteotan Diego Catalanen metodologiaz (*) oinarritzen gara gure azterketak, baladen inguruko zehaztape-

(1) LAKARRA, J.; BIGURI, K.; URGELL, B. Maria GOYRI MINTEGIA: *Euskal Baladak*, II, Hordago, Donostia 1983, 143. or.

(*) CATALAN, D.: “Análisis semiótico de estructuras abiertas”. *El Romancero hoy. Poética*. Gredos. Madrid.

nak osotzeko. Metodologia hau semiotikoa da, testuaren diskurtsotik hasi eta testuaren mito eta historiarraino heltzen dena. Mailak bost dira, era azterbideak sei, horrela azterbide bakoitzak beheragoko mailaren adierazle bezala jotzen du. Hau da, azterketaren lehendabiziko maila, diskurto-intriga maila dugu. Diskurtoa maila honetako adierazlea da eta intriga maila honen adierazkizuna. Eta berdin urrongo mailan, intriga-fabula deiturikoan. Orain intriga adierazle bihurtzen da, eta fabula adierazkizuna. Hirugarren maila fabula-eredu narratiboa deitzen da. Laugarrena, eredu narratiboa-mittoa, eta azkena mittoa-historia. Gutxi gora behera eta inguruz minguruz esateko, lehendabiziko maila azalezkoena dugu, bertan diskurtoak adierazten dituen berezitasunak aztertzen dira, hala nola motiboak, esaldi finkoak ahozko literaturan, adibidez paralelismoak edo bestelako espresabide deigarria: Jar dezagun aipatzen ari garen neskatu ontziratuaren baladatik adibide bat:

“hemen deskantsatzera,
hemen deskantzatzera salaren ikustera”
esaldi hedatua, edo,
“Bein banenguan kalean”,

beste balada batzuetan ere agertzen den esaldia. Hemen baita ere indizioak, sinbolo kodifikatu eta bigarren esanahia dutenak. Adibidez, brodatzeak birjinitatea zaintzea adierazten du, edo “gibeleko leihoa” etxe barneko ziurtasuna. Horrelakoak edozein baladatan errez aurki ditzakegu. Bigarren mailak sekuentziak aztertzen ditu, balada bateko ekintzak, hain zuzen. Intrigak sekuentzien ordena testuan agertzen diren bezelatsu aztertuko lituzke, fabulak ordea, denboran ordenatuak. Eredu narratiboa, definizioz, sekuentzien sinbolizazio logikoa dugu, baladaren “formula matematikoa”, bere prozesu informatikoa errez-tuko duen formula.

Eta azkenengoz mitoa dugu. Baladaren “esanahia” hain zuzen. Catalanen abiapuntuak jarraiturik, mitoa baladaren barnean gertatzen den prozesu bat dugu, zati bitan banandua, transgresioa, oker egin den zerbait, eta mediazioa, okerkeria zuzentzen duen ekintza. Mitoa nolabait apurtu eta konpundu egiten den gizarte legea genuke, gizona aberengandik, gizartea naturatik aldetzen duen gizalegea, Levi-Straussen bidea onarturik. Baladak, gizalege hori indartzen du.

Eta historia geratzen zaigu, baladaren historia, eboluzioa, eta historiak-gizartearen eboluzioak balada horretan izandako eragina.

Jon Juaristik ikusi duenez, beharbada mito hitza, ez dirudi egokia, zeren mitoa sinisten den narrazio bati dagokio, eta noski, baladak jadanik laikoak ditugu. Hara zer dioten arazo honetaz Frye-k:

“Algunas de estas narraciones pueden parecer más importantes que otras: ejemplifican lo que atañe primordialmente a su sociedad. Sirven para explicar ciertas características que se dan en la religión de dicha sociedad... Las narraciones más importantes (...) se pretende que transmi-

tan algo así como un saber especial, algo que en el lenguaje religioso suele llamarse revelación” (2).

Mito hitza eta narrazio mitikoak ez ba dira bakarrik zentzu erlijioso gordetzen dutenak, Fryek laster argitzen duenez, ba dute formalki ez bada ere, desberdintasunik folkloreko narrazioetatik.

“Los mitos poseen dos características que no muestra la narración folklórica o que muestra con menos claridad. En primer lugar los mitos se agrupan para formar una mitología, un vasto cuerno narrativo conectado entre sí, que abarca toda la revelación religiosa e histórica que atañe a su sociedad o se refiere a ella. En segundo lugar (...) los mitos arraigan en una cultura específica y una de sus funciones, es decir a esa cultura qué es lo que es y cómo ha llegado a serlo (...). Las narraciones folklóricas tienen de por sí una existencia más nómada” (3).


Beraz, hobe dirudi narrazio sakratuetarako gordetzea mito hitza. Baina oraindik ideia ez dagoenez zabaldua, eta bestalde ez dugunez hitz hobegorik aurkitu, Diego Catalan jarraituz mito maila erabiltzen jarraituko dugu.

2. NESKA ONTZIRATUAREN MITOAK

Gure azterketaxora itzuliz, “Neska ontziratua”ren baladaren hiru aldaki desberdinak ezagutzen ditugu, bakoitzak bereak ba ditu ere. Nagusiak berez hauexek ditugu: “Brodutzen ari nintzen” Nehor (Barbierren ezizena) eta Dufau-k batua; “Neure alaba Manuelatxo” Azkuek Forun entzuna; eta “Arantzazure joan bear dot”. Honen aldaki bi behintzat ezagutzen dira, bata Maria Goyri Mintegiak Diman batua eta bestea Mikel Zarate Mintegiak jaso, informante berberari. Erabiltzen ditugun testuak Maria Goyri Mintegiak argitaratutakoak dira (Ikus Eranskina).

Hirurak irakurri ezker, azalean berdinak edo berdin antzekoak dirudite. Hor dago marinelaren kantua, neska ontziratua, neskaren buru botatzea, eta gorpua itasoratzea. Hortxe ere lo belarra eta hiltzeko tresna (ezpata, sablea, tijeratxoak). Antzakoak, beraz. Baina mito mailan desberdinak.

Gorago esan dugunez, hauxe dugu mito baten eskema nagusia:



(2) FRYE, N.: *La escritura profana*, Monte Avila, Caracas 1980, 15. or.

(3) FRYE, N.: *op. cit.*, 18. or.

“Brodutzen” astiro irakurtzen ba dugu honetaz konturatuko gara, hor agertzen diren hiru pertsonaiek egin dutela transgresio:

Amak: adulterio nahia.

Neskatxak: tentazioaren jarraipena.

Kapitainak: neskatxaren bahiketa.

Azal dezagun astiroago. Neska brodatzen dago, eta kapitainaren kantua entzun du. Neska neskatila bat da (“haurra” deituko dio amak), indiozioak argi uzten du bere heldugabetasuna, sexo arloko heldugabetasuna, noski. Kantua tentagarria da, eta neskatilak, “andre gazte” beste deituraz, ikusi nahi luke kapitaina baina urreratu ez, badaezbadan. Horregatik amarengana joan eta kapitaina etxe barrutik —“gibleleko lehiotik”— ikusteko baimena eskatzen dio. Baina amak kapitaina etorri dela jakinik., haurra bialtzen du kapitaina gonbidatzen, zertara eta afaltzera. Honetaz begira zer dioen Jon Juaristik:

“(Acciones como comer o tañer instrumentos)
representan eufemismos de acciones sexuales.” (4)

Eta noski, hau ez dela bere asmakizuna, esanahi berdina aurki baitdezakegu beste hainbat testutan. Beraz, ama da erruduna. Neskatxak nahi izan arren ere, ez zuen tentaziora hurbildu nahi. Ba doakio kapitainari eta amaren erreka-dua ematen dio. Jakina, kapitaina ez dela tontua!, eta amaren aurretik aukeratzten du alaba. Eta gonbite berdina egiten dio. Beste guztia argi dago. Neskatxak bere ezjakintasuneari ontzira igoten du, territorioa aldatzen du, sartu da sartu behar ez zuen tokitan. Kapitainak bahitu eta bortxatu nahi du. Neskatxak bere burua hiltzen du. Gorpua itxasora ematen du marinelak eta gorpua berriro itzultzen da bere etxera.

Mediazioak ere argiak dira:

Amak: bere errua alabaren gorpua begi aurrean ikusiz izandako sufrimentuaren bitartez - Gogora zer dion baladak: “Oi ama anderea, so egizu lehiora / zure alaba gaixoa uhinak derabila”-konponduko du bere errua.

Alabak: bere burua hil beharko du bere errua zuzentzeko, eta zuzenduta geratzen dela adierazten du testuak: “haren arima hegaldaka zerura”.

MITOA

Amak	Adulterioa
Alabak	Tentazioan jaustea
Kapitainak	Bahiketa, bortxapena

(4) JUARISTI, J.: *La literatura folklórica*. Argitaratugabea. Hispánicas Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Amak Alaba hilda ikusi
 Alabak Burua hil
 Kapitainak Frustrazioa

Hauxe dugu, bada, “Brodutzen” baladaren mito mailaren irtenbide eta ondorioa. Baina “Arantzazure” aztertu ezkerro bestelakoa genuke.

Desagertu da ama, eta gainera neskaxa ez da “brodatzen” ekoa bezain inuxentea:

“Neure lagunak bai mariñelak
 ez naiz ni afari gure
 afari barik konsoladute
 dau neure estomangue.”

Hau da, neskatak ba du ezaguerarik, sexo arloan ere bai, ukatu egiten du mariñelen gonbitea, eta kapitainak-edo bere mediatzaile diren mariñelak-bahitu beharko dute.

Beraz, beste esanahi bat izango genuke:

MITOA

Kapitainak Bahiketa, bortxaketa
 buru hilketaren bitartez,
 gurari frustrazioa.

Adulterioari buruzko testu batetatik, bahiketaren aurkako testu batetara iragan dugu. Zeharo esanahi desberdina ditue biek, nahiz eta diskurtsoa berdintsua izan. Balada bi zirela esateko hauexek ziren gure arrazoiak, mito mailan oinarrituriko arrazoiak. Baina, noski onartu beharko dut diskurtsoa, azala oso argia dela biotan.

Utz dezagun oraingoz, ziur asko, irtenbiderik ez duen diskusio florentino hau, ea bat edo bi diren, arrazoiak esanak dira eta bakoitzak auta dezala bere gustokoa eta goazen benetan garrantzizko deritzaigun arazora.

Batetik, noiz, zein mailatan hasten da balada bat beste bat bihurtzen? mitoa aldatzen duenean? edo narrazio mailako desberdintasunetan ere bai? Bestetik, zergatik gertatu ote aldaketa hori?

3. ERIZPIDE METODOLOGIKOA

Lehendabiziko itauna metodologiari dagokio eta ez naiz ni pertsonairik egokiena Diego Catalanen usteak finkatu eta aldatzeko. Iruditzen zait, gainera, ez dela uste bakarreko arazoa. Hala eta guztiz, kakoa, beste nunbaiten dago.

Kotzeptu eta errealitate biren arteko banaketan. “Neska ontziratua” baladan edo baladetan gertatzen dena, honelako zerbait da: kontzeptu bi batzen direla batera: tipo eta balada. Thompson-en ustetan, kontzeptu biak desberdinu beharko genituzke. Azken batean, hemen gertatzen den bezala, aztertzen ditugun corpusan zera gertatzen da, hirurak direla tipo berdinekoak, baina hala, ere ez direla balada berdinak. Zer gertatu ote da? Bada historia eta gizartea aldatzen joan diren neurrian aldatzen joan dela balada: amaren pertsonaia desagertzen joan da, kapitainaren jokera desberdinu egin da, neskaxa neska bihurtu -edo Aita Prai Bartolomek adieraziko lukenez, ez bakarrik neska, baita ere neskaa, “a” luzean pekatuen aztarnak aztertuz.

Arazoa hada, baladaren historian kokatzen da. Eta hori aztertzeraz joango gara.

4. ALDAKETAREN ARRAZOIA

Orainartean, balada honen bertasio birekin egin dugu lana. Ziur asko urrunen dauden bertasio biokin. Urrunen behar bada geografiaz (Bata Lapurdikoa, nahiz eta Zuberoan ere aurkitua izan, eta bestea Arratiakoa), baina batez ere egituraz eta moldaeraz. Beraz bazterretan dauden aldaerekin lan egiten ibili gara. Baina gorago aipatu dugunez badago hirugarren bat: tartekoa deituko nuke nik, ez dakit geografia aldetik (itxasoz ez bada zaila da defenditzen Bizkaiko Foru, Laburdi eta Arratiaren tartean dagoenik) baina bai mito eta moldakuntza aldetik.

“Neure alaba Manuelatxo” deitzen da, eta Azkuek batutakoa da. Baladan irakur dezakegunez, beste bien ekintzarik ba dago: alde batetik neskaxak eskatzen dio kantariari etxera joateko amak aginduta. Amaren agindua argia ba da ere:

“Neure alaba Manuelatxo
neure esan bat eidazu
atostean dagon kantoreari
datorkidala esaiozu.”

Honela adulterioaren gaia argitan geratzen da. Baina Manuelatxoren gonbiteak gauzak berriro iluntzen ditu:

“Aitak eta amak biraldu nabe”
Eta berriro:
“geurekin apaldutera”.

Esaldi biok aduherioaren gaia jeitsi egiten dute; esan nahi dut aitari egindako aipamenak adulterioa disfrazatu egiten duela, merketu. Norbaitek esan dezake horrexegatik egiten duela neskak, kantorea engainatu nahiez.

Baina hori askotxo asmatzea da, eta testuak horretaz ez dio ezer. Gainera, neskatoak ezetz esango dio kantorearen gonbiteei, eta beraz, sinestu behar da, adulterioaren gaia desagertzen, ezabatzen hasia dela. Oraindik present egon arren, bahiketaren gaiak askozaz ere indar gehiago hartu du.

Honela bada, adulterioaren gaia geroago eta indargeago agertzen den sekuentzi baten aurrean egongo ginake. Beste alde, geroago eta indargeago bata, geroago eta indartsuago bahiketaren arazoa, edo zehatzago esateko, neskatoaren ezetzaren gaia. Hauexek ditugu aldatzen joan diren arloak, adulterioa ezabatu egin da eta neskatoaren ezetza indartu. “Brodutzen”ean neskatoak ez zuen ezetzik esaten; orain neskatoak arrazoi “faltsuak” jartzen ditu:

“Etxean nabe aitak eta amak
ondo estimaturik”

aztertzen ari garen “Neure alaba Manuelatxu” honetan eta benetako arrazoiak azkenengoan, eufemismoa indatzen delarik:

“Afari barik kontsoladute
dau neure estomangue”
Eskematxo hau egin dezakegu:

BRODATZEN	NEURE ALABA	ARANTZAZURE
Adulterioa	Adulterio guttituz	Adulterioa desagertu
Neskaren baietza	Ezetza	Ezetza indartuz

Gai biok bateratsu joan direla dirudi: bata desagertu hala, bestea indartzen joan da. Zergatik gertatu dira aldakuntzok?

Gizartea aldatzen joan delako noski. Eta aldatzen bere erizpide moraletan. Baladak oker izan zitekeena —okerra zentzu moralean— kentzen joan da. Une batetan gizarteak ez du ondo ikusi adulterioaren gaia aipatzea eta kendu egin du abestiotatik. Norbaitek beste itaun hau ere egin dezake: baina jentea konturatzen al da kantatuaren esanahiaz ala? Puntu honetan entzulengoaren kontzientziak nola dabilen ikusi beharko genuke. Honetaz ez dago datu handirik. Badakit jakin anekdota pertsonalak ez dutela hutsune hau betetzen, baina hala eta guztiz ere, bat kontatu nahi nuke. Behin ikasle batek bere etxeokoe “Prantzie kortekoa” balada, inzesto baten inguruan eraikitako balada, kantatzen debekatu egiten ziotela haurtzaroan esan zidan. Beharbada anekdotak ez du ezer azaltzen, baina ziur nago honela edo horrela baladen gaia susmatu egiten dutela balada tradizionalki kantatzen dutenek.

Gizarteak, gaurko gizarteak ez du ondo ikusten maitasun arazoetan —eta eman diezaiogun hitz honi bere zentzurik zabalena— andreak ematea lehendabiziko pausuak. Hipotesi bezala erabili dezakegu erizpide moral hori, lehendabizikoan, “Brodutzen”ean horixe gertatzen da: amak ematen ditu lehendabizi-

ko pausuak. “Arantzazure”n ordea, gizona da. Ez dakit honelako eritzi aldatzeak ekarri duen baladaren aldaketa, baina hipotesia defendagarria dela uste dut.

Bigarrenez, adulterioaren gaia desgertzen joan den neurrian, agertzen joan da baita ere, baladaren eritzi moralista herstua, balada neskatxa gazteak hezitzeko balada biurtzen da. “Ez da ezezagunekin joan behar” edo horrelako mezu bat bialtzen hasi dira. Berriro moralismoz beteriko eritzia.

Esaten zuen Diego Catalanek eta ederki adierazi ere gizarteak nora jotzen duen hara makurtzen dela ere balada. Hemen gertatu dena horren beste adibide bat baino ez da .izan. Hiruren artean kontzidentziak nagusiak dira, eta gainera badago horrelako jarraipen bat ere. Behintzat teoria mailan eraiki duguna. Baina gure erainkuntza teoriko hutsa izan bada?

Aurkako argumentu honen ezabatzeko kronologia zehatza beharko genuke. Esan nahi da jakin beharko genuke zein sortu zen lehendabizi, artikulu honetan “lehenengo” hitza aipatu dugunean hitzaren zentzu kronologikoa ere kontutan hartzea. Sortu ziren momentuaz ari naiz ez batu ziren momentuaz. Beste era batez esateko, “Brodutzen” al da lehendabizi sortua?, eta ondorengo “Neure alaba” eta gero “Arantzaure”? Edo ordena aldeketen arabera eginda dago. Inork ezin du jakin zein garaitan sortu ziren abestiok Baina “Brodutzen” baladak ba du bere antzinakotasunaren alde beste lurraldeetan ezagutzen diren aldaerak, adibidez Albanian eta Italian, eta Kataluñan. Beraz, beste aldaerok, ba dirudi, “Brodutzen” baladak jarraitzen duela eredurik zaharrenetarikoa hemen aipatzen ditugun hiruren artean. Eta beste biak honen alaba, edo alabaordeko ditugula. Horrela nahiz eta kronologia zehatz jakin ez, ba dirudi “Brodutzen” izan zela lehendabizi, edo behintzat “brodatzen”en eredia eta besteak geroago etorri direla, eta gure hipotesia hau da, gizarteak baladaren zentzua alda daitela, sendotua.

Bukatzeko beraz, historia eta mitoaren arteko loturen adibide bat ematen saiatu gara, metodologia baten puntu eztabaidatsuak ageritara atara dugun artean. Balada tipo bakar baten hiru aldaera aztertuz hauen eboluzio bidea aztertu dugu, eritzi moralak zein pisu duen baladaren eraketan agertuz, eta honela historia eta gizartearen edo literaturaren arteko loturen adibide bat jarritz.

ERANSKINA

NESKA ONTZIRATUA

Neure alaba Manuelatxu
neure esan bat eidazu
atostean dagon kantoreari
datorkidala esaiozu.

Bein banengoan kalean
arri otzaren ganean
dama polit bat etorri jatan
an zer egiten nengoian.

Egun on asko euki daiala
ontziko maisu gastea.
Beste ainbeste euki daiala
linda damatxu geurea.

Aitak eta amak biraldu nabe
datorkidala geurera
datorkidala geurera eta
geurekin apaldutera
geurekin apaldu eta gero
kantuen irakastera.

Nire kantua gura dabena
betor neurekin bordera.
Eskerrik asko mila mesede
estot olako usterik
etxean nabe aitak eta amak
ni ondo estimaturik.

Egin zuen berba bat eta
sartu zuen kapapean
sartu zuen kapapean eta
eroan zuen untzian.

Lo bedar bat ipini zion
bi bularraren erdian
linda dameau lo joan jatan
bosteun legua bidean.

Portunaz bere suertau jatan
ontzian atia jotia
ordu atantxe itzartu jatan
linda damatxu neurea.

Ontziko maisu gaztea
badezu kainibetea?
Eztot nik kainibetarik baia
emongo deusut sablea.

Sableau eskura artuta
emen sartu zuen sabel berean
ordu atantxe ilotzitu zan
linda damatxu neurea.

Neure mutilak lagunak onak
 zer egingo diot oneri?
 Guzti guztiok lastan bana emon
 bota daiogun urari.

2

Brodatzen ari nintzen
 ene salan jarririk
 aire bat entzun nuen
 itsasoko aldetik
 itsasoko aldetik
 untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik
 gan nintzen amagana
 hean jaliko nintzen
 gibelego leihora
 gibelego leihora
 itsasoko aldera.

Bai habil, haurra, habil
 erron kapitainari
 jin dadin afaitera
 hemen deskantsatzera
 hemen deskantsatzera
 salaren ikustera.

Jaun kapitaina, amak
 igortzen nau zugana
 jin zaiten afaitera
 hantxet deskantsatzera
 hantxet deskantsatzera
 salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta
 hoi ezin ditekena
 iphar haizea dugu
 gan behar dut aintzina
 ezin ilkia baitut
 hauxe da ene pena.

Andre gazte xarmanta
 zu sar zaite untzira
 gurekin afaitera
 eta deskantsatzera
 hortxet deskantsatzera
 salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta
igaiten da untzira
han emaiten diote
lo belharra papora
eta untzi handian
lo dago gaixo haurra.

Jaun kapitaina, nora
deramazu zuk haurra?
Zaluxko itzulazu
hartu duzun lekura
hartu duzun lekura
aita amen gortera.

Nere mariñel ona
heda zak heda beia
bethi nahi nuena
jina zaitak aldera
ez duk hain usu jiten
zoriona eskura.

Jaun kapitaina, nora
ekarri nauzu huna?
Zalu itzul nezazu
hartu nauzun lekura
hartu nauzun lekura
aita amen gortera.

Andre gazte xarmanta
hori ezin egina
hiru ehun lekhotan
juanak gira aintzina
ene meneko zira
orai duzu orena.

Andre gazte xarmantak
hor hartzen du ezpata
bihotzetik sartzen ta
hila doa lurrera
aldiz haren arima
hegaldaka zerura.

Nere kapitain jauna
haxe duzu malurra.
Nere mariñel ona
norat aurthiki haurra?
Norat aurthiki haurra?
Hortxet itsas zolara.

Hiru ehun lekutan
dago itsas leihorra.
Oi Ama anderea
so egizu leihora
zur'alaba gaixoa
uhinak derabila.

3

Arantzazure joan behar det
gabean edo egunez
Birjina amari preguntaduten
ixingo bada edo ez.
Birjina amonek baietz dino ta
seme jaunonek entzun ez
bioren borondatia balitz
bitartekorik behar ez.

Grazianatxu, neure laztana
zugana biraltzen neude
geur afariten etorritia
egin bazeinke mesede.
Neure lagunok, bai marinelak
ez naz ni afari gure
afari barik konsoladute
deu neure istamangue.

Lobedartxu bat ifini nion
bere bularren erdien
mila legua pasadute be
lotan topadu zebien.
Untxitxo honek jo abenian
itxasua ta mastrian
orduterantxik iriltzarri zan
Grazianatxu neuria.

Neure lagunok, eraman nixue
aitaren amen herrire.
Mila legua eginde dagoz
zure aiten amen herrire.
Grazianatxu, neure laztana
berandu akordeu zara
mila legua eginde dagoz
zure aiten d'amen herrira.

Deabru gaiztoak eraman deiela
dendari honen jostura
nonbaisten bere hesturik dago
neure soineko txamarra.
Eskatu zituen tijeretxuok
askatuteko jostura
sartu zituen tijeretxuok
bihotzetikan barrura.

Neure lagunok, bai marinelak
o'in honi zer'in geinio?
Baletxu bati amarradute
ureri emon geinio.

(Dima-Bargundian Antonio Cid, Gabriel Fraile, Koldo Biguri eta Ruper Lekuek
1981-VIII-21ean Patxi Bilbaori hartua)